

2009/6/24

## MASA HEDABIDEAK ETA TALDE NORTASUNAREN ERAIKUNTZA

Josu Amezaga

### Talde nortasuna eta kultura

Hasteko, talde nortasuna eta kultura bereiztea proposatu nahi dugu. Izan ere kontzeptu ezberdinak izan arren, sarriegitan sinonimotzat hartzen direla esan genezake. Labur esateko, jende talde batek gauzak egiteko moduari deitzen diogu kultura: nola hitz egiten duten, nola jokatzeko duten batzuek besteekin, nola lantzen duten lurra, nola sentitzen duten eta abar. Nortasuna aldiz, jende multzo batek bere burua talde gisa ikustea izendatzeko erabiltzen dugu. Autopertzepzioa da, bestelako ondorioak izan ditzakeena (adibidez jokabide zehatz bat bidera dezake).

### Irudikatutako komunitateak

Talde nortasunez ari garelarik, komunitateez ari gara: hots, beren burua talde gisa ikusten duten multzoez. Banakoaren nortasunaz ari dela, Eriksonen hiru autopertzepzio ezberdin aipatzen ditu: nitasuna (ni neu naiz, neure buruaren berdina eta besteen ezberdina); denborako eta espazioko jarraikortasuna (atzokoa naiz, eta biharkoa ere); eta besteen onarpena (besteek nire nitasuna eta jarraikortasuna aintzat hartzen dituzte). Autopertzepzio hirukoitz hau aplikagarria da talde nortasunen kasuan ere, eta gerta dadin, ezinbestekoa da taldeko kideak harremanetan egotea. Harreman horiek, bestalde, bi motatakoak izan daitezke. Talde txiki batean aurrez aurreko harremanak dira, eta kideek elkar ezagutzen dute. Hor osatzen da talde nortasuna duen komunitatea. Talde handietan ordea kideek ez dute zuzenean elkar ezagutzen, eta haien arteko harremanak ez dira aurrez aurrekoak, bitartekotuak baizik (mekanismo ezberdinen bidez burutzen direnak alegia). Hauek dira Andersonen irudikatutako komunitateak deitzen dituenak, alegia, gainerako kideak zuzenean



ezagutu ez baina irudikatu egiten ditugunak. Adibide ezagunena nazioa da. Nazioko kideek ez dute denek zuzenean elkar ezagutzen, baina zenbait erakunderen bidez harremanetan sentitzen dira (nagusia estatua izanik).

Irudikatutako komunitateetan, taldekideak komunitatea ordezkatzeko duten ikurrekin identifikatzen dira, eta ikur horiekin identifikatzen dituzuzuzenean ezagutzen ez dituen taldekideak ere. Nazio nortasunera itzulita, nazioa ordezkatzeko duten ikurrak dira horiek (ikurrina, futbol selekzioa...). Honek ikurren garrantzia azpimarratzera garamatza.

Nazio nortasuna, alabaina, komunitate mota partikular bati lotutako nortasun bat baino ez da, gure garaian garrantzi handikoa izan arren. Beste komunitate batzuk klase sozialaren inguruan osatzen dira, edota erlijio, genero, kultura, eta abarren inguruan, unean unean batzuek besteek baino indar handiagoa hartzen dutelarik.

Hau ikusteko, Euskal Herrian gaur egun agertzen diren talde nortasun ezberdinei erreparatu diezaiokegu. Egindako ikerketen arabera, badago euskal nortasun politiko sendo bat, euskaldunak espainol eta frantsesengandik bereizten dituenena. Badago baita euskal nortasun kultural sendo bat. Baina biak ez datoz beti batera.

### **Talde nortasunak eta komunikabideak globalizazioaren garaian**

Globalizazioan joera kontrajarriak gertatzen dira nortasunen inguruan. Batetik, historikoki nortasun emaile garrantzitsu izan diren kultura eta estatu nazioa indarra galtzen ari dira nortasun iturri gisa. Bestetik, informazioaren gizaritean talde nortasunaren eraikuntzan gero eta pisu gutxiago dute banakoen baldintza estrukturalak, eta gero eta handiagoa beronek egiten dituen aukerek (Melucci). Horrekin batera ugaltzen ari da nortasun partekatuen fenomenoak, edota aldi berean identifikazio-eremu anitzetan murgiltzearena (Robins). Halaber, munduan gertatzen ari

---

diren aldaketen ondorioz komunitarismorako joera batzuk ari dira areagotzen (Castells). Azkenik, bizimoduak harreman eta sozializazio modu berrietara garamatza, espazio fisikoaz haratago doazen komunitateak sortaraziz (Wellman).

Testuinguru honetan, komunikabideek nortasunen eraikuntzan duten garrantzia areagotu egiten dela esan genezake. Identifikaziorako ikurrak hedatzeko, espazioan sakabanatuta dagoen jendea harremanetan jartzeko, edota espazio publikoa egituratzeko duten ahalmenak, indar berezia ematen die testuinguru berri horretan.

Komunikabideek gaur egungo nortasunen eraikuntzan duten garrantziaren adibide bat transnazionalismoa dugu: lurralde jakin batetik haratago doan nazio nortasuna alegia. Transnazionalismoari buruzko ikerketek, hartara, erakusten digute nola herrialde ezberdinetan sakabanatuta dauden talde diasporiko eta migrariak komunitatea osatzen duten, muga geografikoak gainditzen dituzten komunikabide berriei esker (bereziki satelitea eta internet). Kasu hauen azterketak nabarmen uzten du komunitate zentzua eta talde nortasuna osatzeko komunikabideek duten garrantzia.

---